

Zazpikaleetako txokoak irudietan

PINTURA ARINA, KALEAN. Pintura Arineko Lehiaketea egin eban Bizkaiko Alkarte Artistikoak, atzo, eta margolari ugari batu ziran Bilbon, Zazpikaleetako bazterrik ederrenak margozteko asmoagaz



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

AUKERAN. Margolari bakotzak zein toki margotu aukeratu eban.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

KOLOREAK. koadro koloretsuak egin zituen gehienek.

Irene Berro

Donejaueko katedrala, Mallonako eskailerak, Unamuno plazea, Txakur kaleko iturria... Zazpikaleetako txokorik gustukoena aukeratu eta horixe margotu. Hori da atzo goizan hainbat margolarik egin ebena. Bizkaiko Alkarte Artistikoak gertautu, Euskal Herri osoko margolari askok parte hartu eben pintura arineko lehiaketaren txapelketan. Eta eurekin batera, Asturiasetik, Leondik eta Kantabriatik etorritako margolariak. Goizeko bederatzietatik aurrera Zazpikale-

etatik pasiaran ibilteko eta uriko parte zaharretako tokiak eta uneak irudietan ikusteko aukerea. Txokorik txoko, margoz margo ibilteko.

Txakur kalea eta Bidebarrieta lotzen diran izkinan Jose Miguel Minayogaz topo egin eban *Bizkaia*-k. «Estudio batean margozten dot eta irakasleak animau nau parte hartzeko. Lehenaldizko aldian da lehiaketa batean parte hartzen dudala», kontatu euskun. Bilbok toki polit-politak dituela margozteko pentsetan dau, eta era horretako lehiaketea gehiago gertatu beharko litukiela. Ibilbidea se-

gitu eta Iñaki eta Igorregaz batu ginan, Donejakue plazan. Pintura gustetan jakela, baina lehiaketako gauzei garrantzitsuena saria dala adierazo eutsien *Bizkaia*-ri. 1.200 euro lehenengo saria eta 750 euro

bigarrena. Sariaz ganera, dana dala, Bilbo margoztea gustoko dabe. «Bilbo munduko uririk hoberena da eta koadroetan jasoteko toki ederrak ditu», gaineratu eban Iñakik.

Danetara, 50 lagun ibili ziran

TOKI ASKOTAKOAK

Euskal Herri osoko margolariak hartu eben parte, eta eurekin batera Asturiasetik, Leondik eta Kantabriatik etorritakoak

ARRAKASTEA

Lehen aldian da lehiaketea egiten dabela, eta Bizkaiko Alkarte Artistikoko lehiadaria pozik agertu zan

olio, akuarela eta akriliko teknikak erabiliz, margotu eta margotu.

Bizkaiko Alkarte Artistikoko lehiadaria Carmen Aranzamendik azaldu euskun, «parte hartzaileak danak amateurrak dira, gaur egun, gaxa dalako pintura bizitea, baina eurenak jaso ditue: Carmen de la Fuente, Mendok, Reyesek eta Maria Suarezek, hain zuzen».

Aurton egin dabe lehen aldiz lehiaketea. Eta pozik agertu zan Aranzamendi eukitako arrakasteagaz. Datorren urtean barriro egingo dabe.

Gure artean euskeraz



Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura